

## Hezkuntzako oposizioak espezialitateen arabera deitzeko Parlamentuaren betoaren aurrean, STEILASen prentsa oharra

Gaur Parlamentuan PSNk bultzatutako mozioaren onarpenaren aurrean, non betoa ezartzen den oposizioak deitzeko espezialitateen arabera, eta ez espezialitateen eta hizkuntzen arabera, STEILASek ondokoa adierazi nahi du:

Erabat arbuiatzen dugu Parlamentuak galaraztea Hezkuntzako oposizioak deitzea espezialitateen arabera. Debekatze honek dakar hizkuntza eskubideen urratzearekin jarraitzea, hain zuzen UPNk ezarritako urratzeak.

Diskriminazio bat da oposaketen deialdia espezialitateka eta hizkuntzaren arabera izatea. Horrelakoak ez dira Nafarroako Gobernuko beste Departamentu batean egiten, ezta bi hizkuntza ofizial dituen beste inongo komunitate batean ere.

Tristura handiz behatzen dugu nola Izquierda-Ezkerrak oposizioan dauden beste alderdi politikoekin lerrokatzen den gai honetan, bere euskarafobia aldarrikatuz. Gure harridura areagotzen da gai honetan gehiengo sindikalak aurkako jarrera adierazten duelako, Polizien Legearen aurkako jarrera agertzeko ordea, sindikatuen gehiengoa errespetatu zuten. Argi dugu, gai hau lantzeko lekua Mahai Sektoriala dela.

Euskara Legea indargabetzeko ahaleginetan jarraituko dugu, saiatuko gara Nafarroako biztanle euskal elebidunak jasaten duten diskriminazioari bukaera ematen behin betiko.